



2. Nola egiten da?

2.3.- Erakunde baten
ALarentzat rolak eta
profilak

1. Introducción

Pilula honetan, Adimen Lehiakorraren jardura osatzen duten rolak eta egiten diren ohiko zereginak aztertzen dira. AL sistema batek modu egokian funtziona dezan, ez da beharrezkoa pertsona asko tartean sartzea, ez eta pertsona hauek dedikazio handia izatea ere. Beraien asteroko lanetan txertatu beharra dute AL, besterik ez, eta erakundearen beste prozesu bat gisa landu beharra dute..



Rolak eta profilak

2. Roles y Perfiles de la IC

Erakunde batek AL lanak egiteko edozein pertsonak balio dezakeela pentsa daiteke hasiera batean. Baina, emaitzen lorpenak errazteko eta hobetzeko hainbat gaitasun daude. Hori dela eta, hobeto egokitzen diren profilak daude.

Hasi aurretik, adimen lehiakorraren unitate bat osatzen duten hainbat rol definitu beharra dago:

AL analista: informazioa bilatzeaz eta aukeratzeaz arduratzen den pertsona, ondoren erakundeko kideen artean zabalkunde egingo duena eta informazio horren ulermena eta interpretazioa erraztuko dituen.

Dinamizatzailea: Funtzionamendu onena bermatzeko, AL sistemaren jardura gainbegiratzen duen pertsona. Bere zereginen artean ondorengoak aurki daitezke: informazioa zaintza-faktore kritikoekin lerrotatuta dagoela ziurtatzea, analisten lana ikuskatzea, erabaki organoetan informazioa ustiatzea, analistari laguntza ematea...

Halaber, erakundean informazioa sortuko duten analista bat edo gehiago eta informazio horren hartzaileak egongo direnez, norbaitek sistemaren adierazleak definitzea eta jarraipena egitea beharrezkoa da. Lan hau egingo duen

pertsona, sistemaren dinamizatzailea bera izan daiteke (edo horietako bat, hainbat balira).

Rol hauek izan arren, erakundeko gainontzeko kideek ere AL jardueran parte har dezakete, bai alertak jasoz, bai informazioa emanez, bai eta sistemak hobeto funtziona dezan laguntza emanez ere "entzute aktiboa".

Bi rol hauen artean, Adimen Lehiakorren analista izango da modu aktiboagoan jardun beharko duena, bera izango baita sistema gauzatuko duena. Dinamizatzaileak une zehatzetan soilik parte hartuko du; bere ezagutza eta irizpideak beharrezkoak diren unean eta jarraipena egiten duen unean.

Jarraian, rol bakoitzak dituen zeregin eta erantzukizunak zehazten dira:

Adimen Lehiakorren analista:

- Zaintza-faktore kritikoak (ZFK) ezagutzea eta informazio beharrei erantzuna ematea.
- Informazio-iturriak aukeratzea eta mantentzea.
- Iragazkiak definitzea eta eguneratzea.
- Informazioa bilatzea eta aukeratzea.
- Informazioa partekatzea.
- Informazioa aztertzea.
- Informazioa zabaltzea.
- Informazioa baloratzea.

Dinamizatzailea:

- ZFK definitzea eta berrikustea, enpresaren estrategiarekin lerrokatuta.
- Analistari laguntza ematea zalantzak argituz, hainbat informazioaren interesa baieztatuz eta informazio interesgarria lortzera bideratuz.
- Analistari, informazioaren unean uneko beharrak edo zehaztasunak adieraztea.
- AL sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea.
- Adierazleen jarraipena berrikustea eta jarraipena egitea.
- Sistemaren desbiderapen zein gabeziak zuzentzeko beharrezko ekintzak zehaztea.
- Proiektuaren garapenari, sistemaren funtzionamenduari... buruzko informazioa zuzendaritzari jakinaraztea.
- ALren kostua kalkulatzeko.
- ALren etekina baloratzea.